

**MESEDEZ, "ERANTZUN-ORRIAN" MARKATU ERANTZUNAK****1. ATALA: ULERMENA****1A- ENTZUNDAKOIA**

(6 x puntu 1 = 6 puntu)

- ❑ Irakur itzazu galderak. (2 minutu)
- ❑ Bi aldiz entzungo duzu grabazioa. Bi entzunaldien artean 30 segundoko tartetxo bat utziko da.
- ❑ Entzun eta gero aukera ezazu erantzun zuzena.

**TELEBISTA DIGITALA**

Joana Mendibururi egindako elkarrizketa entzungo duzu jarraian; telebista digitalari eta honek dakartzan berrikuntzei buruz hitz egingo dute.

1. **Zer entzun dugu etorkizuneko telebistari buruz?**
  - a) Telebista gehiago sortu beharra dagoela nahitaez.
  - b) Digitalizazioak sateliteen ahalmena gutxituko duela.
  - c) Beharrezkoa izango dela digitalizazioa.
2. **Besteak beste telebista analogikoari buruz zera esan dezakegu: ...**
  - a) Irudiaren definizioa 0 eta 1 zenbakien segida batekin lortzen dela.
  - b) Korrante elektrikoaz baliatzen dela irudiak transmititzeko.
  - c) Numerikoa den sistema erabiltzen duela.
3. **Telebista digitalean ...**
  - a) Irudia eta soinua internetetik jasoko ditugu.
  - b) Zenbat eta zero eta bat gehiago eduki irudiaren puntu bakoitza hobeto definituko da.
  - c) Irudiaren kalitatea pixel kopuruaren arabera izango da.
4. **Aldatuko dira telebista ikusteko ohiturak? Bai...**
  - a) Filmak ezin izango dira jatorrizko bertsioan ikusi.
  - b) Interneteko informazioa telebistaren pantailan kodifikatuta aurkituko dugu.
  - c) Telesaioetan parte hartzeko ez dugu telefonoa erabili beharrik izango.
5. **Telebista digitalari esker...**
  - a) Era konprimituagoan transmitituko dira irudiak.
  - b) Ez da sateliteen lanik behar izango.
  - c) Kanal bakoitzean telebista bakarra izango dugu.
6. **Telebista mota baten desagerpenaz eta bestearen ezarpenaz zera dio: ...**
  - a) 1996. urteaz geroztik aukeran ditugula bata eta bestea.
  - b) 2011. urtean analogikoa desagertuko dela.
  - c) 2012. urtean analogikoa hedatuta egongo dela.

**1 B- IRAKURRITAKOA**

(12 x puntu 1 = 12 puntu)

- Testuari buruzko galdera hauetan bilatu erantzun egokia.

## 1. testua

Testuan beltzez aurkituko duzu galdegaia, testuinguruan kokatzeko

BERRIA, 2005eko maiatzaren 1a  
Amagoia Iban

**“Ezkongarria”**

Goizeko zortziak dira, eta, ohetik jaiki gabe ere, auzoko guztiok dantzan jartzeko gauza da bera bakarrik. **Maria Bayok ere nahi lukeen eztarri pribilegiatu baten jabe baita**, gure aldameneko emakume historikoa. Sustatuta iratzarri nau gaur. Gaur ere bai, **zehatzago hitz egite aldera**. Goizeko zortziak eta bost jada. Eta gaurkoa **lo zapo** egiteko eguna nuen. Egoerak badu alde on bat: ordu honetan, andrearen senar psikopata ez da hitz egiteko gauza ere. Halakoetan, eskertu egiten dira besteen ajeak. Itzul gaitezen emakumearengana, baina. «Altxa hadi eta hasi gosaria prestatzen». 10 urteko alabari ari zaio. «Zerri halakoa! Ez al dinat jaikitzeke esan nik?». Eta horrela. Minutu dezente. Esaldietan gero eta **birao** gehiago tartekatuta. Alaba negarrez. Azkenean, oihuka hori ere. Eta senarra esnatu da, denak isiltzen ez badira gerrikoa hartu eta **epelak emango** dizkiela esateko ozen. Eta ni neure onetik aterata, paretari kolpeak jotzen. Azkenaldian **hainbeste entzuten ari garen familia eredu “ezkongarri”** baten eguneroko kontuak zertan diren ikasten.

**7- Maria Bayok ere nahi lukeen eztarri pribilegiatu baten jabe baita. Hau esaten denean zer ematen du jakintzat.**

- Maria Bayok halako eztarria izan nahi du.
- Maria Bayo emakumearen ezaguna da.
- Maria Bayorena da eztarri on baten eredu.

**8- zehatzago hitz egite aldera**

- zehatzago hitz egiteagatik
- zehatzago hitz egin arren
- zehatzago hitz egite hutsarekin

**9- gaurkoa lo zapo** egiteko eguna nuen

- lo arina
- lo sakona
- lorik ez

**10- birao. Zer esan nahi du hitz horrek?**

- hitz iraingarria
- hitz luzea
- hitz ulergaitza

**11- epelak emango. Zer emango die, beraz?**

- epeldutako ogiak
- zorabioak
- jipoi handi bat

**12- hainbeste entzuten ari garen familia eredu**

**“ezkongarri” bat. Idazlearen iritziz, beraz, horixe da...**

- ezkondu ohi direnek osatzen duten familia eredu bat.
- ezkontzera behartuta dagoen familia eredu bat.
- ezkongarria den ereduako familia bat.

<u>2. testua</u>	
<p>BERRIA, 2005eko azaroaren 30a</p> <p><b>Cameloteko langileak</b></p> <p>Zornotzako Camelot enpresak lau langile kaleratuko ditu bihar, ELAk salatu duenez. Zuzendaritzak jakinarazi zien joan den astean lantegitik bidaliko zituela eta, kaleratzeen harira, sindikatuak gaitzetsi du legez kanpoko kontratuarekin ibili direla beharrean orain arte. “Bi urte daramatzate lanean, bi urte zerbitzu edota obra kontratuarekin, nahiz eta ohiko lanetan jarduten duten autogintza enpresan”.</p> <p>Cameloten kontratazio politika gaitzesteaz gain, Lan Ikuskaritzak, Lan Ordezkaritzak eta orobat administrazioek halako gertaerei “ez ikusiarena” egiten dietela salatu du ELAk. Enpresako zuzendaritzarekin biltzeko eta kaleratzeak atzera botatzen saiatzeko eskatu die langileen batzordeko ordezkariari, halaber.</p>	<p><b>13- Zein da egia.</b></p> <p>a) Kaleratuko dituztenak kontratu eskasekin aritu dira orain arte lanean.</p> <p>b) ELAk miretsi egiten ditu kaleratuek izan dituzten kontratu eredugarriak</p> <p>c) ELAk salatu du Cameloteko zuzendaritza kaleratu egingo dela.</p> <p><b>14- Zein da egia?</b></p> <p>a) Lan Ikuskaritza ez da ohartu ere egin gertatu denaz.</p> <p>b) Cameloten kontratazio politika egoki samarra da ELAren ustez..</p> <p>c) Lan Ordezkaritzak nahiago omen du arazo honi ez aurre egin.</p>

<u>3. testua</u>	
<p>Bat-bateko bertsolaritza</p> <p>J. Garcia, J. Sarasua, A Egaña (60. or.)</p> <p><b>Zer da bertsolaritza</b></p> <p>Komunikazio zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza, nazio, estatu, eskualde, herri edo mundu mailako aktualitateari hausnarraldia ematen dion eremu bat, poetikoki batzuetan, ironikoki edo umorearen bila besteetan.</p> <p>Hausnarraldia hitza ez dago gaizki hautatua, iradokitzailea da. Hausnartzea zera da bere lehen zentzuan: murtxikatu gabe irentsitako belarra urdailetik berriz ahora ekartzen du behiak, eta han lasaiki murtxikatzen du bere ahoko zukuekin ondo nahastuz ostera ere irensteko. Gaur egun mendebaldeko hiritarrak hedabide masiboetatik berebiziko informazio kopurua irensten du, eta gizaki (post)modernoaren ezaugarrietako bat informazio interesatu hori guztia digeritzeko ezintasuna da. Informazio horren zati bat umore tonuan edo klabe pertsonal nahiz poetikoan hausnartzeko aukera txiki bat eskaintzen du bertsolariak, jarduera artistiko partehartzaile kolektibo baten bidez.</p> <p>Zalantzan jar liteke gaurkotasunezko gai bati edo galdera unibertsal bati bertsolariaren inprobisazioak nolako ekarpena egin liezaiokeen. Eskasa dela argudia daiteke, ekarpen intelektualak gaur egun azterketa zientifiko serioak eta lan literario mamitsuak eskatzen dituela. Bada, beste muturrean, inprobisazioan berebiziko ekarpen bereziak ikusten dituenik ere. Edonola ere, bertsolariak jolastu egiten du, inprobisazio poetiko eta ludikoaren bitartez eskuartearen duen informazio multzoa nahasten du, gozatu egiten du, eta asmatzen duenean, gozarazi ere bai.</p>	<p><b>15- Zergatik iruditzen zaie hausnarraldia hitza iradokitzailea?</b></p> <p>a) Murtxikatu gabe irensten delako bertsoa</p> <p>b) Hitzak dituen bi esanahiak baliatzen dituztelako.</p> <p>c) Behiak baduelako belarra murtxikatu gabe irensteko gaitasuna, bertsolariak bezala.</p> <p><b>16- Gaur egun hedabide masiboetatik jasotzen den informazioa...</b></p> <p>a) da bertsolariarentzat hizpide.</p> <p>b) ezin du bertsolariak digeritu.</p> <p>c) gizaki modernoaren ezaugarrietako bat da.</p> <p><b>17- Testuaren arabera zer esan daiteke dela bertso saio bat?</b></p> <p>a) Klabe pertsonal poetikoa.</p> <p>b) Jarduera artistiko kolektiboa.</p> <p>c) Hiritarren hedabide masiboa.</p> <p><b>18- Gaurkotasunezko gai bati edo galdera unibertsal bati bertsolariaren inprobisazioak ekarpen handia egin liezaioke? Zer uste dute idazleek?</b></p> <p>a) Ekarpena ezinbestean handia dela.</p> <p>b) Bertsolariak ez duela gai horiei buruz hitz egiten.</p> <p>c) Iritziak iritzi, bertsolaritza batez ere jolas bezala ulertu behar dela.</p>

## 2. ATALA: HIZKUNTZAREN ADIERAZPENA 2A- TESTUA OSATU

(30 x puntu 1 = 30 puntu)

- Testuko hutsune bakoitzerako egiten zaizkizun 3 proposamenetatik zuzena aukeratu.

### Atezain zelatariak. Leire Cancio. [www.zientzia.net](http://www.zientzia.net) (2005eko urria)

“101. gela” esan die hoteleko harreragileak. “Gela bihar eguerdiko hamabiak baino lehen utzi beharko duzue libre, hemen duzue txartela”. Eskuineko eskuaz hotelaren logotipoa daraman plastikozko objektua eman die. Hotel gehienetako harreragileen eguneroko hiztegian aspaldi ordezkatu du txartel hitzak **(19)** giltza, burdinaz egindako horzdun erreminta hura. Sarraila mekanikoen aroa alde batera utzi, eta sarraila elektronikoen garaian **(20)** bizi gara.

Sarraila mekanikoen garaian, hotel askotan, **(21)** arduratzen zen langile bat zegoen. Noizean behin, ateetako zilindroak trukatu egiten zituen hotelean izandako **(22)** batek giltzaren kopia atera, egun batzuetara hotelera bueltatu eta gela bera irekitzeko aukerarik izan ez **(23)**.

<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>
a. ohiko	a. murgilduta	a. giltzaz	a. jabe	a. zekion
b. arestiko	b. bilduta	b. giltzez	b. langile	b. zezan
c. behin bateko	c. hautatuta	c. giltzak	c. bezero	c. ziezaion

Lehenengo sarraila elektronikoak merkaturatu zirenean, arazo hura alde batera uzteko bidea **(24)** zen.

Sarraila elektronikoetan, txartela galtzen bada, nahikoa da sarraila berriz **(25)** beste kode bat izango duen txartel bati erantzun **(26)**. Aukera horrek asko errazten du ehunka gela dituen eraikuntza bateko gelak kudeatzea. Hori ez da, **(27)**, elektronikak ematen duen aukera bakarra. Sarraila elektronikoetan, txartela datu jakin batzuk ezagutzeko programatu ahal izango da, datuak irakurtzean, adibidez, nor sartu den eta zein ordutan, atea ondo itxita dagoen eta abar esan **(28)**.

<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>
a. urratu	a. konfiguratzeak	a. zekion	a. ordea	a. dezan
b. atondu	b. konfiguratu	b. dezan	b. horregatik	b. ditzan
c. puskatu	c. konfiguratzea	c. diezaion	c. bestela	c. dezazun

Garai bateko sarraila mekanikoetatik gaur egungo sarraila elektronikoetarako aldaketa ez da bat-batekoa izan. Giltzen ondorengoak zulatutako txartelak izan ziren, baina, horien kopiak egitea zaila ez zela **(29)**, laster baztertu ziren. Orduan hasi zuten bidea sarraila elektronikoek. **(30)** txartel magnetikoak etorri ziren. Banketxeetan erabiltzen hasi zirenez, kopuru handietan ekoiztuz kostua merkatu egin zen, eta, **(31)**, erabilera zabaldu egin zen. Azkenik, txip-txartelak agertu ziren, txartel magnetikoek baino aplikazio gehiago **(32)**.

Sarraila guztietan, giltza, giltzaren irakurgailua eta irekitzeko mekanismoa daude. Giltzak digitalki gordeta dauka informazioa, kode bitarrean, eta informazio hori grabagailu baten **(33)** ezaba eta alda daiteke.

<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>	<b>32</b>	<b>33</b>
a. ikusten	a. Lehen	a. osterantzean	a. dituztenak	a. laguntzen
b. ikusita	b. Lehenik	b. ondorioz	b. direnak	b. lagunduz
c. ikusiz	c. Lehengo	c. aldiz	c. dituenak	c. laguntzaz

Normalean, informazio hori zifratuta egoten da, hau da, algoritmo baten laguntzaz enkriptatu egiten da algoritmo horren **(34)** dakien irakurgailuak bakarrik irakur dezan. Kontaktuan jartzean, irakurgailuak deszifratu eta irakurri egiten du. Irakurgailua sarrailan egon **(35)** da, eta horrekin batera memoria bat dauka, txartelak daraman informazioa gordetzen duena.

Sarrailak ez dio kode bati bakarrik erantzuten, eta, **(36)**, sartzeko baimena txartel bati baino gehiagori eman ahal zaio. Hotelen kasuan, adibidez, sarraila ez da berriz programatu behar bezero **(37)** hotela uzten duen bakoitzean, sekuentzia-kodeei erantzuteko programatzen baita. Sarrailak jatorrizko kodearen sekuentzia-kodea irakurtzen duenean, automatikoki bezero zaharrari baja eman eta bezero **(38)** kodea ezagutu behar duela ulertzen du.

<b>34</b>	<b>35</b>	<b>36</b>	<b>37</b>	<b>38</b>
a. erantzuna	a. omen	a. berriz	a. batek	a. berriaren
b. galdera	b. ohi	b. hala ere	b. bat	b. berri
c. txipa	c. ote	c. horregatik	c. bati	c. berriko

### Banda magnetikotik txipera

Txartel magnetikoetan hiru banda magnetiko daude. Banda bakoitzean gorde **(39)** datuak estandarizatuak daude. Lehenengo eta bigarren bandak **(40)** informazioa gordetzeko erabiltzen dira, eta hirugarrenean, adibidez, gelaren datuak sar daitezke, sarraila ireki ahal izateko.

Txartel magnetikoetan, informazioa maila magnetikoen **(41)** adierazten da. Maila magnetiko horiek interpretatzean, zero eta bat zenbakien segida bat ematen dute. Txartel magnetikoetan, informazioa irakurri **(42)** ez da egiten sarrailako irakurgailuan. Sarrailak ez du txartelean berriro idazteko **(43)**.

<b>39</b>	<b>40</b>	<b>41</b>	<b>42</b>	<b>43</b>
a. dakiekeen	a. bankuen	a. bila	a. besterik	a. aldarterik
b. daitezkeen	b. bankuzko	b. esku	b. bakarrik	b. aukerarik
c. dezakeen	c. bankura	c. bitartez	c. soilik	c. adorerik

Txartelaren informazioa irakurgailuak daukan **(44)** gordetzen da, eta irakurgailuak egutegia eta ordularia duenez, txartela duen pertsona gelan zer egunetan eta zer ordutan sartu den jakin daiteke. Txartel magnetikoek 20 eta 40 byte **(45)** memoria izan dezakete.

Txipa duten txartelek, **(46)**, kilobiteko memoriak dituzte eta txartelaren memorian informazioa gordetzeko aukera ematen dute. **(47)**, oso energia gutxi behar da txip batean informazioa gorde ahal izateko, irakurgailuaren bateriekin egin daiteke. Txartel magnetikoetan, ordea, ezin da energia-maila horiekin banda magnetikoen **(48)** grabaziorik egin.

<b>44</b>	<b>45</b>	<b>46</b>	<b>47</b>	<b>48</b>
a. memorian	a. bitartean	a. berriz	a. Hala ere	a. ondoan
b. oroigarrian	b. bitarteko	b. berriro	b. Bestela	b. gainean
c. gogoetan	c. artean	c. berriki	c. Izan ere	c. alboan

## 2B BERRIDAZKETAK

(10 x 2 puntu 1 = 20 puntu)

- Parentesi artean agertzen dena erabiliz eta komeni den tokian kokatuz emandako esaldiak beste modu batean adierazi behar dituzu, betiere esaldi bakarra eginez. Parentesi artekoak aurretik edo atzetik puntutxoak baditu, horri zerbait lotu behar zaio. Adibidez: (BA... ERE) **badut ere**. Punturik ez badu ezin zaio ezer lotu
- Adibidea:
- Bost baino ez? Egia esango dizuet, askoz gehiago etortzea espero nuen! (...LAKOAN)
- Bost baino askoz gehiago etorriko zirelakoan nengoen

**Puntuak**

**1. Ez izan dudarik, laguntza lortuko dugu! (HORIXE)**

---

---

**2. Euskaldunok gure hizkuntzaz landa besterik ere beharko dugu etorkizunean. (EZ EZIK)**

---

---

**3. Lapurrak halako jipioia eman zidan, ospitalean 15 egun eman behar izan baintuen. (HAIN)**

---

---

**4. Azkenean lortu du bere gurasoak animatzea, halako gauzak egiten umeez baino ez dakiten moduan. (BESTE INORK)**

---

---

**5. Mundu digitalean sartzea gauza bat dela nabarmendu zuten agintariek, eta beste bat, oso bestelakoa, informazioa eskuratu ahal izatea. (ZER IKUSIRIK)**

---

---

**6. Erakunde publikoek oihartzun handiagoa dute ikerketa zentro eta unibertsitate pribatuek baino. (ADINAKO)**

---

---

**7. Legea ebaztea eta betetzea ez da gauza bera. (ALDE HANDIA)**

---

---

**8. Frankismoan, hezkuntza lege baten aldaketari esker, zenbait argitaletxe dirutza irabazten hasi zen. (ARRAZOIA)**

---

---

**9. “Egunkaria” itxi zutela hiru urte beteko dira bi hilabete eta erdi barru. (HEMENDIK)**

---

---

**10. Asteburuko eguraldi makurraren ondorioz, mendiko aterpeetan gordeta egon behar izan zenuten. (BEHARTU)**

---

---

### 3. ATALA: IDATZIZKO ADIERAZPENA IDAZLANA

(16 puntu)

- Gutxienez 300 hitz izan behar ditu idazlanak.
- Kalifikaziorako kontuan izango dira erregistroaren egokitasuna, gaiaren garapena, hizkuntzaren zuzentasuna, zehaztasuna eta aberastasuna.
- Ondoko gai hauetatik bat aukeratu eta garatu.
- Azterketan bertan oharretarako eta zirriborrarako lekua daukazu. Erabili.
- Hori **ez da zuzenduko**

**Puntuak**

- a) Zure herrian argitaratzen den aldizkarirako “jaietara autobusez” gaiari buruzko iritzi-artikulua idatzi behar duzu, honako puntu hauek garatu behar dituzula jakinda:
- a. Gazteen arteko auto-istripuak hizpide izaten dira.
  - b. Eskualde batzuetan abian dira autobus-zerbitzu bereziak.
  - c. Zein ezaugarri bete beharko luke zerbitzu horrek?
- b) Institutuko gurasoen elkarteko kidea zara eta zentroan sortu berri den aldizkarirako “hurrengo eguneko pilula” gaiari buruzko iritzi-artikulua idatzi behar duzu, honako puntu hauek garatu behar dituzula jakinda:
- Sexualitateari buruzko informazio nahikoa izaten dute gazteek?
  - Askatasuna dakar pilula horrek?
  - Axolagabekeria dakar?



**IDAZLANAREN ZIRIBORROA EGITEKO ORRIA**





# TESTAREN ERANTZUNAK

Ikaslearen datuak:

DEITURA: \_\_\_\_\_

IZENA: \_\_\_\_\_

Marka ezazu X bat zure aukerari dagokion leihoan

1A ATALA ENTZUNDAKOAREN ULERMENA			
	A	B	C
1.			X
2.		X	
3.			X
4.			X
5.	X		
6.		X	

--	--

1B ATALA IRAKURRITAKOAREN ULERMENA			
	A	B	C
7.			X
8.	X		
9.		X	
10.	X		
11.			X
12.	X		
13.	X		
14.			X
15.		X	
16.	X		
17.		X	
18.			X

2. ATALA HIZKUNTZAREN ADIERAZPENA			
	A	B	C
19.	X		
20.	X		
21.		X	
22.			X
23.		X	
24.	X		
25.			X
26.			X
27.	X		
28.	X		
29.		X	
30.		X	
31.		X	
32.	X		
33.			X
34.	X		
35.		X	
36.			X
37.	X		
38.	X		
39.		X	
40.	X		
41.			X
42.	X		
43.		X	
44.	X		
45.		X	
46.	X		
47.			X
48.		X	